

Aierbe, A., Martínez de Morentín, J. I. y Medrano, C. (2010). Telebista kontsumoaren profila eta nerabeen harrera testuingurua: kultura arteko eta sexuaren araberrako aldeak/Television viewing profile and reception context in adolescents: intercultural and gender differences. En, Concepción Medrano y Juan Ignacio Martínez de Morentín, *Medios de comunicación, Valores y Educación* (pp. 197-220; pp. 301-323). Bilbao: Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco. ISBN 978-84-9860-421-4

Telebista kontsumoaren profila eta nerabeen harrera testuingurua: kultura arteko eta sexuaren araberrako aldeak

Ana Aierbe¹
Juan Ignacio Martínez de Morentín²
Concepción Medrano³
Euskal Herriko Unibertsitatea

ATARIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako Euskal Herriko Unibertsitatearen Komunikazioa eta Balioak Katedraren esparruan, Telebista dieta eta hainbat kulturatako nerabeen balioak eta nortasunaren eraikuntzari buruzko I+G+I Proiektuarekin lotuta ikerketa taldeak 2009an egindako lanaren aurretiazko emaitzak aurkezten dira atal honetan. Beraz, lanean, nazioko (Donostia eta Malaga) zein nazioarteko zenbat testuingurutako (Iquique-txile eta San Francisco de Macoris-Dominikar Errepublikak) nerabeen telebista kontsumoaren profilari buruzko (iraunkortasuna, jarduera alternatiboak, telebista lehentasunak) eta harrera testuinguruari buruzko (testuinguru fisiko eta soziala, gurasoen bitartekotza eta familia giroa) hainbat adierazletan dauden antzekotasunak eta desberdintasunak aztertzen dira.

Abiaburuan izandako ikuspegi teorikoak, hain zuzen, teoria ekologikoa (Bronfenbrenner, 1986) eta harrera teoria (Orozco, 2002, 2007) dira. Lehenengoari esker, harrera testuinguruari oro har berebiziko garrantzia ematen zaio (ezaugarri kulturalak, familia ezaugarriak, telebista dietarako kideak, testuinguru fisikoa, etab.); bigarrenak, bestalde, ikus-entzuleek

¹ Euskal Herriko Unibertsitateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saileko Irakasle Titularra, eta Komunikazioa eta Hezkuntza Balioen Katedraren Ikertzaile Iraunkorra. (ana.aierbe@ehu.es)

² Euskal Herriko Unibertsitateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saileko Irakaslea, eta Komunikazioa eta Hezkuntza Balioen Katedraren Idazkari Exekutiboa. (juanignacio.demorentin@ehu.es)

³ Euskal Herriko Unibertsitateko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saileko Katedraduna, eta Komunikazioa eta Hezkuntza Balioen Katedraren Koordinatzailea. (mariaconcepcion.medrano@ehu.es)

telebistako mezuekin egindako deskodeketari begiraten dio. Harrera espazioak, bestalde, zentzu ekoizpenerako espaziotzat jotzen dira, eta bertan, ikus-entzuleen eguneroko bizimoduko eta euren «bitartekotza» kulturaletakako testuinguruetakako faktore subjektibo zein abstraktuek parte hartzen dute. Horregatik, esanahiak ez dira mezuan soil-soilik metatzen; aitzitik, mezuak ikus-entzuleen bitartekotzekin edo erreferenteekin daukan elkarreaginaren fruitua da esanahia, ikus-entzuleak bere esanahia ematen baitie jasotako mezuei.

Testuinguruaren araberrako eta bitartekotzaren bidezko ikuspegi hone-tatik (telebista/testuingurua/ikus-entzulea) nerabeek euren erreferentziatzko kultura testuinguruetan egiten duten telebista kontsumoa aztertzen da; aldi berean, gurasoen bitartekotza estiloak ere aztertuko ditugu, bitartekotza hori gertatzen den familia inguruneko elkarreaginezko alderdiak aintzat hartuta.

1. TELEBISTA KONTSUMOAREN PROFILA: IRAUNKORTASUNA, JARDUERA ALTERNATIBOAK ETA LEHENTASUNAK

Nerabeen telebista kontsumoari buruzko gure testuinguruan gauzatu-tako lan gehientsuenen arabera, egunean hiru ordu eta erdi eta lau ordu bitartekoa da kontsumoa (Gabelas, 2005). Alabaina, gure aurretiko lanen arabera, nerabeen kontsumo profila, batez bestean, 2 ordu eta erdikoa da egunean; asteburuan, aldiz, denbora luzatu egiten da (Medrano, Aierbe eta Orejudo, 2009; Medrano, Aierbe eta Palacios, 2010). Telebistari begirako lehentasunen arabera TB ikusten igarotzen duten denborari dagokionean, berriz, ez dago sexuaren araberrako alderik. Oro har, hauek dira telebistari begirako euren lehentasunak: telesailak (batez bestean, 3,55), umorea (3,25), marrazki bizidunak (3,28) eta filmak (3,25). Atzetik daude beste hauek: kirolak (2,61), albistegiak (2,43), lehiaketak (2,12), dokumentalak (1,86) eta kronika arrosa (1,50) (Medrano, Aierbe eta Palacios, 2010). Alabaina, mutilek gehiago jotzen dute kirolak, filmak, albistegiak eta dokumentalak ikustera; neskek, aldiz, nahiago dituzte amodiozko saioak, saio komikoak eta entretenimenduzkoak. Pindadok (2005a), bestalde, ondorioztatu zuen Malagako nerabeen genero gustukoena suspensea edo beldurra zela, euskarri mediatikoa zein den erreparatu gabe; bigarren tokian, saioak eta *Talk Show*ak ditugu, nola mutil, hala neskenentzat.

Latinoamerikari dagokionean, Bringuék eta Sádabak (2008) Iberoame-rikako (Argentina, Brasil, txile, Kolonbia, Mexiko, Peru eta Venezuela) 10 eta 18 urte bitarteko 20.941 ikaslek komunikabideen erabilerari buruz duten iritzia bildu zuten. Gauzatutako ikerketa lanaren datu orokorren arabera, astelehenetik ostiralera bizpahiru orduan kontsumitzen omen dute telebista, gutxi gorabehera (iraunkortasun adierazlea). Adinari eta generoari dagokionean, aldiz, 13 urtetik beherako mutilek kontsumitzen dute gutxien; gehien, berriz, 14tik 16 urtera bitarteko neska nerabeek (alabaina, herrialde bakoitzak bere gidalerroak ditu). Datu horiek bat datoz txileko testuin-guruan egindako beste ikerlan batzuek emandako datuekin (Catalán, 2007; CNTV, 2009); Dominikar Errepublikan, haatik, kontsumoa pixka bat handiagoa da: 3 orduetik 5era, egunean.

Telebistari begirako lehentasunei dagokionean, Hortonek eta Arquettek (2000) 77 gazte espainiar, ingeles eta iparramerikar aztertu zituzten, eta ondorioztatu zuten, saio komikoak eta dramatikoak dira nola mutilek hala neskek gehien ikusten dituztenak (halere, neskek denbora gutxiago igarotzen dute telebistaren aurrean). Fuenzalida, Julio, Suit, Souza, Villalobos, Barbano, eta Agirre, (2007) ikertzaileek adierazi dute telenobelak toki itzela daukala txileko telebista programazioan. Horien arabera, albistegien aurretik (20:00etatik 21:00etara) *prime timen* eskaintzen dituzten telenobelen gaietan bilakaera nabarmena gertatu da, eta ordutegi horretako familien askotarikotasunari heldu nahi izan omen diote; gainera, ukitu melodramatikoa alde batera utzi, eta komikoagoa txertatu dute. Alabaina, geroago ematen dituztenetan (22:00etatik aurrera), gai «gogorrakoak» lan-tzen dituzte, ikus-entzule helduentzat aproposagoak.

Oro har, gurasoak oso kezkatuta daude euren seme-alabek telebistan ikusten duten sexu eta indarkeria kopuruagatik; eta eduki horiei begira egiten dute, batez ere, bitartekotza lana (Kaiser Family Foundation, 2004; Nathanson, 2002)

Norekin eta non ikusten dute telebista? Egindako ikerlan batzuen ara-bera, telebista bereziki bakarrik ikusteko joera dago; ondoren, familia osoarekin; eta azkenik, anai-arrebekin. Telebista euren kasa bakar-bakarrik ikusteak eragina dauka nerabeek edukiak aukeratzeko duten askatasunean; izan ere, gurasoek ez dute zaintzen eta kontrolatzen aukeraketa hori. Bitxia bada ere, telebista kontsumoarekin alderatuta, 14 eta 15 urte bitartean, aukeratzeko askatasuna galtzen dutela ikusi dugu (García, 2005).

Hainbat lanek (esaterako, Gallo, Lopera eta Vélezek (2008) Kolonbian egindakoak) aldarrikatzen dute nerabeek euren logelan telebista edukitzeak

zuzeneko eragina daukala beronen aurrean egoteko joerarekin; esan nahi baita, telebista logelan edukitzea geroz eta banakoagoa den kontsumoarekin lotzen da, eta beraz, familiarekin batera ikusteko ohituraren galerarekin. Haatik, Hardy, Baur, Garnett, Crawford, Campbell, Shrensbury, Cowell eta Salmonek (2006) egindako ikerlanean ez da harreman hertsirik sumatzen bi aldagai horien artean. Datuen arabera, familia ingurunean egon litezke aldagai garrantzitsuagoak (gurasoek eta anai-arrebeek ikustea, etab.), nerabeek telebista ikusteko joera handiagoa izatean zuzenean eragina dutenak.

Gure testuinguruko nerabeek neurri berean egiten dituzte bi gauza: gurasoekin batera saioak eta albistegiak ikusi eta telebista euren kasa (bakar-bakarrik) ikusi. Bigarren maila batean, berriz, anai-arrebeekin ikusten dute telebista. 12-16 urte bitartekoek, telebista ikustez gainera, honako jarduerak egiten igarotzen dute ordu gehien, gehienetik gutxienera: kirola egin (%40,3), Interneten ibili (%20,8), lagunekin geratu (%16,7), musika entzun (%6,9) eta irakurri (%5,6). 17-24 urte bitarteko gazteek, bestalde, denbora bera eskaintzen diete kirolari eta lagunei (%22,2); ondoren, honako hauek egiten dituzte: irakurri (%16,7), musika entzun (%11,1) eta Interneten ibili (%9,3). Ondorioztatu dugunez, adinean aurrera egin ahala, beherantz egiten du Interneten ibiltzen eta kirola egiten igarotzen den denbora; ugalduta egiten da, haatik, irakurtzen igarotzen dena (Aierbe, Medrano eta Palacios 2006).

Bestalde, Iberoamerikako nerabeek, batez ere bakarrik ikusten dute telebista (10 nerabetik 6k); atzetik, amarekin edo anai-arrebeekin batera, aitarekin batera, lagunekin batera edo beste senitartekoren batekin. Batik bat euren logelan ikusten dute, bakar-bakarrik; bigarrenik, egongelan; atzetik, anai-arreben gelan; eta azkenik, gutxiago, sukaldian edo jolasarako gelan. Nolanahi ere, telebista ikustea da, oraindik ere, Iberoamerikako nerabeek euren astialdia igarotzeko egiten duten jarduerak nagusietako bat (herrialdeen arabera datua aldatuz doa). Esate baterako, txiletarrentzat, telebista ikustea hirugarren tokian dago; aurretik ditu, hurrenez hurren, musika entzutea eta txatean ibiltzea. Mexikarrek, bestalde, telebista ikustea dute gustukoena; ondoren, musika entzutea edo txatean ibiltzea (Bringué eta Sádaba, 2008).

Puntu honetan, hain zuzen, izugarritzko garrantzia hartzen du gurasoen bitartekotzak; izan ere, aitak edo amak eskaintako dimentsioek edo ikuspegiak asko lagun diezaizkete gazteei *a priori* sumantzen ez dituzten esanahi maila batzuk aurkitzen (Gabelas eta Lazo, 2008). Ikuspegi honek, helduen garunak eskaini diezaizkien informazio fluxuek ez dute

kontrolerako balio hutsa (adibidez, denbora parametroak); haatik, fluxu horien faktore nagusia orientatzeko moduan datza, partekatutako kontsumo baten esparruan.

2. GURASOEN BITARTEKOTZA ETA FAMILIA GIROA

Gurasoek hainbat estrategia mota erabiltzen dituzte euren seme-alabek telebistarekin duten harremanean eragina izateko; besteak beste, gurasoen bitartekotza estiloak ditugu, esaterako: a) Partekatutako bitartekotza edo elkarrekin ikustea: helduek euren seme-alabekin ikusten dute TB; hala, toki berean bilduta egoten dira, baina ez dute, ezinbestean, ikusten dutenari buruzko eztabaidarik izaten; b) Bitartekotza murriztailea: gurasoek hainbat arau jartzen dizkiete seme-alabei, saio jakin batzuk ikustea galarazteko edo TB ikusteko orduak mugatzeko; c) Bitartekotza hezigarria: gurasoek saioei buruzko zenbait alderdi eztabaidatzen dituzte, saioa ikusi bitartean edo ondoren; d) Gaizki bideratutako bitartekotza edo «egiten utzi» ereduak: seme-alabei nahi dutena eta nahi dutenean ikusten uzten diete. Iritzi bateratuaren arabera, bitartekotza hezigarria da, hain zuzen, onura gehien dakartzan gurasoen bitartekotza; baita elkarrekin ikustea ere, baina berebiziko arreta eskaini behar zaio ezaugarri bati: ez da nahikoa elkarrekin ikustea, gurasoek esku-hartze aktiboa izan beharko dute ezinbestean.

Nerabezaroan, aipatutako hiru bitartekotza motetatik, elkarrekin ikustea eta bitartekotza hezigarriak beherantz egiten dute; izan ere, bilakaera fase honetan oso ohikoa da nerabeak gurasoengatik bereizteko prozesua. Alabaina, estilo murriztaileak zerikusi handiagoa dauka hazkuntzaren estiloarekin, gurasoen eta seme-alaben harremanen aldaketekin baino (Eggermont eta Oppenhaffen, 2008). txilen egindako ikerketen arabera, berriz, estilo murriztailea da nerabeen artean gutxi agertu dena (Catalán, 2007; CNTV, 2009 eta Santos, 2007).

Bestalde, ikerketek ez dute emaitza eztabaiaezinik ematen nerabezaroan telebista elkarrekin ikusteari buruz. Egile batzuen aburuz, telebista elkarrekin ikusteko joerak beherantz egiten du adinean aurrera egin ahala (Nathanson 2002; Ward, 2005); bai gurasoek seme-alabei eskubideak murrizteko egindako saialdiek gatazkak eragin ditzaketelako gurasoen eta seme-alaben artean, bai nerabeek euren gelan ikusten dutelako geroz eta gehiago telebista edo beste pantailaren bat (eta ondorioz, murriztu egiten dira telebista elkarrekin ikusteko aukerak). Nathansonek (2002) gurasoekin

eta nerabeekin egindako azterlanak agerian utzi zuen bitartekotza murriztaileak harreman hertsia zeukala nerabeek euren gurasoekiko jarrera ezkorragoak izatearekin eta lagunekin telebista gehiagotan ikustearekin. Bide beretik, testuinguru fisikoak ere (esate baterako, etxean telebista bat baino gehiago edukitzea; bereziki, gela bakoitzean bat baldin badago) zaildu egiten du arauak eta mugak jartzea; era horretan, handitu egiten baita telebista bakarrik ikusteko joera. Alabaina, beste ikerlan batzuen arabera, gurasoek eta seme-alaba nerabeek telebistari begirako geroz eta lehentasun gehiago partekatzen dituzte, eta ondorioz, elkarrekin ikusteko joera geroz eta handiagoa da. Hardy et al. (2006) egileak egindako ikerketa lanak adierazten duenez, seme-alabak telebista ikusten ari direnean gurasoak ere bertan egoteko joera handitu egiten da nerabezaroan. Hori horrela izateko arrazoi bat, esaterako, etapa horretan gurasoek seme-alabekin gauza gutxiago egin dezaketela izan liteke (adibidez, elkarrekin bazkaldu, norabait joan, etab.), eta horri atera nahi diote etekina.

Euskal Autonomia Erkidegoko nerabeekin egindako aurretiazko ikerketa lanean (Aierbe, Medrano eta Palacios, 2006; Aierbe eta Medrano, 2007; Aierbe, Medrano eta Orejudo, 2008; Medrano, Aierbe eta Orejudo, 2009), agerian geratu zen nerabeekin erabiltzen diren bitartekotza estilo nagusiak elkarrekin ikustea eta bitartekotza hezigarria direla. Neskek, adibidez, bitartekotza murriztailea eta hezigarria pairatzen dute, batik bat; mutilek, berriz, gaizki bideratutakoa («egiten utzi»). Era berean, balio batzuei edo besteek garrantzi handiagoa ematen zaie, nerabeek hautemandako bitartekotza estiloaren arabera.

Iberoamerikako testuinguruan, Bringuék eta Sádabak (2008) ere gurasoen bitartekotza lana aztertu dute, nerabeek hainbat pantailari begira duten erabilerari dagokionean. Zehazki, telebistako zenbait eduki ikusteko mugak aztertu dituzte. Ondorioztatu dutenez, nerabeak eurak dira saioei buruzko erabakiak hartzen dituztenak, beste erabaki iturri batzuekin batera: gurasoak, anai-arrebak, etab. Adinean aurrera egin ahala, aukeratzeko askatasunak ere gorantz egiten du; izan ere, 14 urtetik gorako nerabeen %60k onartzen dute autonomia dutela saioak aukeratzeko. Dena den, gurasoek aginteari eusten diote edukiak aukeratzeari dagokionean (%43); eta, azkenik, anai-arrebekin partekatuta aukeratzeko dutela adierazi dute galde-tegiari erantzun diotenen herenek. Sexuari dagokionean, mutilek autonomia handiagoa dute, oro har, telebistari buruzko erabakiak hartzeko; neskek, ordea, adierazi dute gurasoek neurri handiagan esaten dietela zer saio ez duten ikusi behar.

Nolanahi ere, gurasoen bitartekotza estiloak familiaren elkarreraginezko dinamikan kokatu behar dira, ezinbestean; izan ere, eguneroko harrera testuinguruek eragina dute komunikabideen mezuen interpretazioan eta igorritako balioen hautematean. Eta ezin dugu ahaztu, jakina, familiaren inguruan dagoen testuinguru soziokulturala, dauden harreman makrokosmikoen mikrokosmo erreproduzitzaila bat besterik ez baita (Pindado, 2005b).

Egile batzuek gurasoen elkarreragin murriztaileetan finkatu dute interesa, eta nerabeek telebistari begira duten erabileraren ondorioz gurasoek eta seme-alabek izaten dituzten eztabaidarako arrazoiak aztertu dituzte. Hala, Bringuék eta Sádabak (2008) adierazi dute euren azterlanean parte hartu duten Iberoamerikako nerabeen erdientzat baino gehiagorentzat telebistaren erabilerak ez duela gatazkarik eragiten gurasoen eta euren artean; gainera, helduenak dira gutxien eztabaidatzen dutenak. Adin guztiei erreparatuta, mutilek neskek baino gehiago eztabaidatzen dute gurasoekin (salbuespena: 14 urtekoak). Nerabezarotik aurrera, telebistaren erabileragatiko eztabaidak dezente murrizten dira neskengan. Herrialdeei dagokienean, Venezuelakoak dira gutxien eztabaidatzen dutenak; eta gertutik jarraitzen diete, Brasilgoek, Argentinakoek eta txilekoek. Atzetik datoz Perukoak eta Mexikokoak; bertan, eztabaidatzen dutenak eta eztabaidatzen ez dutenak kopuru berbera osatzen dute. Eta, azkenik, Kolonbiakoak ditugu; gehien eztabaidatzen dutenak, alegia.

Hona hemen eztabaidarako arrazoiak, handienetik txikienera: a) telebistaren aurrean igarotzen duten denbora (oro har, hamaika urtetik aurrera igotzen hasten da, eta 14tik, jaisten); b) TB une ezegokietan ikustegatik; c) adingabeek ikusten dituzten edukiengatik. Neskei dagokienean, hain zuzen, kontsumo denbora da arrazoi nagusia; mutilei dagokienean, berriz, edukien nolakotasuna. Telebista ikusteko uneak eragindako gatazkak, berriz, neurri berekoak dira bi sexuetan. Herrialdeei dagokienean ere hainbat ñabardura bereizten dira. Esate baterako, azterlan honetan parte hartu zuten txileko nerabeen %61k adierazi dute sekula ez dutela eztabaidarik izan gurasoekin telebistarekin lotutako konturen batengatik; eztabaidatu duten apurretan, berriz, telebista une ezegokietan ikusteagatik izan omen da. Beste muturrean, Mexiko dugu telebistarekin lotutako arrazoiren batengatik gurasoekin sekula eztabaidatu ez dutela adierazi duten nerabe gutxieneko Iberoamerikako herrialdeetako bat (%50; batez besteko orokorra, berriz, %59 da).

Datu hauek ematen dute, berez, telebistako edukiekin edo ikusteko denbora mugatzearekin lotuta sortu ohi diren gatazkei buruzko informazio

zehatzagoa; alabaina, nerabeek telebista edukiak ikusteko prozesuan familia dinamikaren eragin faktorea aztertzeke zereginen aurrera egin behar dugu, ezinbestean.

Pindado irakasleak hirugarren atalean azaldu duen moduan, zenbait ikerlanek oinarri moduan hartu dute Chaffée, McLeod eta Walkmanen (1973) kontzeptualizazioa, eta sakon aztertu dute komunikaziorako familia patroien eta telebista kontsumorako ohituren arteko harremana. Hala, kontrolari eta familia harmoniari garrantzia ematen dioten familiek (gizarteari begira dauden familiek) bitartekotza murriztailearekin izango dute harremana; independentzia, autonomia eta seme-alaben errealizazioaren alde diharduten familiek, berriz, (kontzeptuari begira dauden familiek), orientazio bitartekotzarekin izango dute harremana (bitartekotza hezitzailearekin eta telebista elkarrekin ikustearekin, alegia). txileko testuinguruan, bestalde, ikuspegi etnografikoan oinarrituta, telebista harrera etxe barneko komunikazio mikro-gertakariaren arabera aztertzea defendatzen du Fuenzalidak (2005).


Hainbat ikerlan aztertu ondoren, eta telebista kontsumoa familia dinamikan kokatzeko asmoz, «familia giroa» adierazlea sakon aztertzea erabaki dugu honako ikerketa lan honetan. Hain zuzen, familia bateko kideen hautemateetan oinarrituta, familia giroaren izaeraz ari gara, hainbat dimentsio aintzat hartuta: Garapena, Harremanak eta Antolamendua (Moos, 1974).

Gabelas eta Lazorekin (2008) bat eginez, komunikabideen kontsumoarekin izan ohi den gatazka, hain zuzen, hazteko, esploratzeko, ezagutzeko eta komunikabide eszenatoki bera partekatzen duten guztiak elkar ezagutzeko aukeratzat jotzen dugu. Esan nahi baita, gatazkari ikuspegi positibotik begiratzea da helburua. Izan ere, egileen hitzetan, «gurasoek, seme-alabek eta pantailek lurralde bat osatzen dute, eta bertan, kontsumo osasungarria, autonomia eta erantzukizunezkoa garatzea ekarriko duten harremanen multzoa diseinatzen da».

3. KULTURA ARTEKO ETA SEXUAREN ARABERAKO ERKAKETA IKERLANA

Honako ikerketa honetan, 15 eta 19 urte bitarteko 283 nerabek parte hartu dute; hain zuzen, San Francisco de Macorísekoak (Dominikar Errepublika), Iquiquekoak (txile), eta gure testuinguruan, Malaga eta

Donostiakoak. Parte-hartzaileen erdiak baino gehiago (150) San Francisco de Macoríseko (Dominikar Errepublika) komunitatekoak dira; gainerako komunitateek, berriz, antzeko parte-hartzaile kopurua izan dute. Lagin orokorreko bi heren (%69,6) neskak dira. Testuinguruaren arabera banaketa hau aztertuta, ikus dezakegu Macorísi dagokion laginean, neskak %82 direla; Malagakoan, berriz, nesken kopurua ez da %48ra iristen (Malagan, eta soil-soilik Malagan, mutilen kopuruak neskena gaingitzen du).



Ikerketa honetan erabili dugun neurtze tresna, hain zuzen, telebista ohiturei buruzko galdetegia da (CH-TV.02) (Medrano eta Aierbe, 2008); galdetegiaren hasierako bertsioan, 32 item zeuden guztira. Galdetegia sarean aplikatuz gero, 30 minutu behar dira betetzeko. Lehenengo zatian, gurasoen ikasketei, lanbideari eta lan egoerari buruzko datuak biltzen dira, eta baita familiaren osaerari buruzko datuak ere (familia egitura eta anai-arreben kopurua). Galdetegiaren bigarren zatian, bestalde, hainbat adierazleri dagozkion itemak ditugu. Eta hauek dira, hain justu, ikerlanean kontuan hartu ditugunak: iraunkortasuna (telebistaren aurrean igarotako orduak), TB ikustearen jardura alternatiboak, telebista generoci begirako lehenetsunak, hautemandako bitartekotza estiloak, telebista ikustearen gizarte testuingurua (norekin ikusten duten telebista), telebista ikustearen testuinguru fisikoa, saioak partekatzearen edo ikustea debekatzearen helburua eta hautemandako familia giroa.

Gurasoen bitartekotza adierazleari buruzko galdetegiko itemak osatzeko, Valkenburgren (1999) eskalan oinarritu gara, eta nerabeentzat egokitu dugu. Hala, estatistika azterketen bitartez, itemak egokiak ote diren aztertu dugu; alegia, item horiek neurtu nahi ditugun dimentsioak ispatatzen ote dituzten aztertu dugu.

Bide beretik, familia giroa adierazlea ere gehitu dugu; hain zuzen, nerabeek hautemandako komunikazio patroiei eta familia harremanei buruzko adierazlea. Eta zehazki esanda, kohesioa, adierazkortasuna eta gatazka dimentsioak aintzat hartzen dituena. Horretarako, *Family Environmental Scale (Familiako Gizarte Giroaren Eskala, FES; Moos eta Moos, 1981, 1987)* lana hartu dugu oinarri moduan. Familiako kide bakoitzak familia bizitzaren hainbat alderdiri buruz duen hautematea neurtzen du, hain justu, eskala honek. 10 azpi-eskalek osatutakoa da, eta guztien artean hiru dimentsio deskribatzen dituzte: familia giroko Harremanak, Garapena eta Egonkortasuna. Honako ikerketa honetarako aukeratu dugun «Harremanak» dimentsioak, hain zuzen, familian hautemandako kohesio edo batasun maila (KO), iritzien eta afektuen komunikazioa edo adierazpen librea (AD) eta beronen elkarreragin gatazkatsuen maila (GA) aztertzen ditu.

Jarraian zehaztuko ditugun ataletan, aurretiko ikerlaneko aurretiko etapa honetan eskuratutako emaitza garrantzitsuenak aipatuko ditugu, labur-labur.

3.1. Telebista kontsumoaren profilaren zenbait adierazle

a) Iraunkortasuna eta jarduera alternatiboak

Iraunkortasuna adierazleak, hain zuzen, nerabeek telebistaren aurrean igarotzen duten ordu kopuruari egiten dio erreferentzia; nola lanegunetan, hala asteburuan. Aztertutako komunitate guztiei erreparatuta, ondoriozta dezakegu nerabeek batez bestean 2,53 ordu igarotzen dituztela telebista ikusten, lanegunetan.

Testuinguruak erkatuz gero, alde nabarmenak eta estatistikari begira esanahi handikoak aurkituko ditugu nerabeek egunero telebista ikusten igarotzen duten ordu kopuruari dagokionean. Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, Malagako taldeak dauka mailarik handiena (3,53 ordu, batez bestean); gainerako komunitateek, aldiz, maila txikiagoak dituzte, eta

guztiek ere antzekoak. Azkenik, Donostian daukagu mailarik txikiena (2,10 ordu, batez bestean). Testuinguruaren arabera alde nabarmenak aurkitu ditugun arren, sexuari dagokionean ez da alde handirik sumatzen mutilen eta nesken artean. Salbuespena dugu, beharbada, Iquique (txile): badirudi, neskek iraunkortasun handixeagoa dutela mutilek baino.

1. taula.
TB aurrean igarotako orduak, lanegunetan

TESTUINGURUA	B-bestekoa	N	Desb. tip.
1 Donostia	2,10	40	1,27
2 Malaga	3,53	40	1,30
3 Macorís	2,43	148	1,34
4 Iquique	2,39	54	1,83
Guztira	2,53	282	1,49

Telebistaren aurrean asteburuan igarotzen duten ordu kopuruari dagokionean, berriz, testuinguruaren arteko aldeak ez dira estatistikoki esanahi handikoak; alabaina, aldean orientazioak laneguneko gidalerro berberei jarraitzen die. Malaga da nabarmenena, eta berak dauka iraunkortasun handiena (4 ordu); gutxiena, aldiz, Macorísek (3 ordu).

2. taula.
TB aurrean igarotako orduak, asteburuetan

TESTUINGURUA	B-bestekoa	N	Desb. tip.
1 Donostia	3,51	39	1,57
2 Malaga	4,00	38	1,93
3 Macorís	3,00	149	1,97
4 Iquique	3,45	53	3,45
Guztira	3,29	279	2,29

Bestalde, TB ikustearen jarduera alternatiboan artean, azpimarratzekoak ditugu hauek: 'famiarekin egotea' (batez bestean, 8,9), 'lagunekin egotea' (7,5), 'musika entzutea' (6,8), 'Interneten nabigatzea' (5), 'sakelako telefonoa erabiltzea' (4,2), 'irakurtzea' (3,3) eta 'kirola egitea' (2,5). Bitxia da bideojokoengatik erakutsitako interes eskasa (1). Dena den, gazte horiek

astialdian gauzatzen dituzten jardueren kopurua aintzat hartuz gero, gehientsuenek 5 jarduera edo gehiago aukeratzen dituztela ikusiko dugu. Era berean, komunitateen arteko aldeak aise ikusteko modukoak dira; ez, haatik, muturrekoak: Donostian eta Iquiquen denbora gehiago igarotzen dute astialdiko jarduerak gauzatzen; baina Iquiquen dezente handiagoa da banaketa.

b) *Telebista generoei begirako lehentasunak*

Telebista generoei begirako lehentasunen analisia egiteko, saioak honako genero hauetan bildu genituen: 1) Informazioa, 2) Dokumentalak, 3) Fikzioa (saioak, telesailak, filmak eta marrazki bizidunak); 4) Entretinemendua (*magazineak*, lehiaketak, umorea, *talk showak* eta kronika arrosa-txutxu-mutxuak). Kultura arteko eta sexuaren arabera erkaketak hainbat datu interesgarri eman zituen.


Nerabeek, ororen gainera, fikziozko saioak aukeratzen dituzte (batez bestekoa: 2,84). Dena den, aldeak sumatzen dira sexuaren arabera (mutilek, 2,76 batez bestean; eta neskek, 2,88 batez bestean), eta baita testuinguruaren arabera ere. 2. irudian ikus dezakegun bezalaxe, batez bestekorik handiena Malagako neskek daukate (3,23, batez bestean); txikiena, berriz, Macorís-ko mutilek (2,44, batez bestean). Bigarren tokian, dokumentalak (2,74) aukeratzen dituzte gazteek. Sexuaren arabera badago alderik (mutilek, 2,92 batez bestean; eta neskek, 2,66 batez bestean); testuinguruaren arabera, aldiz, ez. Hirugarren tokian, albistegiak ditugu (batez bestean, 2,47). Alde nabarmenak daude bai sexuari dagokionean (mutilek, 2,69 batez bestean; eta neskek, 2,37), eta baita testuinguruari dagokionean ere: batez bestekorik handiena Iquiqueko mutilek daukate (3,10); txikiena, berriz, Malagako neskek (1,93). Laugarren tokian, berriz, entretenimenduzko saioak (batez bestean, 2,46). Bertan, testuinguruaren arabera baino ez daude aldeak: Iquiquek dauka batez bestekorik handiena (2,71) eta Donostiak txikiena (2,19). Bosgarren tokian, *talk showak* ditugu (batez bestean, 2,32). Honetan ere, aldeak nabari dira testuinguruaren arabera; ez, haatik, sexuaren arabera. Hala, Macorís-en daukate batez bestekorik handiena (2,79); txikiena, berriz, Donostian (1,50). Seigarren tokian, kirolak (batez bestean, 2,27). Sexuaren arabera alde handiak sumatzen dira (mutilek, 3,13 batez bestean; neskek, berriz, 1,86); testuinguruaren arabera, aldiz, ez. Azken tokian ditugu kronika arrosako saioak edo txutxu-mutxuak (batez bestean,

1,76). Sexuaren arabera, mutilek gutxiago ikusten dituzte (batez bestean, 1,61) eta neskek gehixeko (batez bestean, 1,82); testuinguruaren arabera, aldiz, ez dago alde nabarmenik. 2. irudian ikus daitezke kultura arteko eta sexuaren arabera aldeak, fikziozko generoari dagokionean (hori baitauek lehen tokian).

Laburbilduz, telebista generoak aukeratzeko ordena, oro har, hau izan zen: fikziozko saioak, dokumentalak, albistegiak, entretenimenduzkoak, *talk showak*, kirolak eta kronika arrosa (txutxu-mutxuak).

2. irudia.

Kultura arteko eta sexuaren arabera aldeak, fikziozko generoari dagokionean



Testuinguruaren arabera, aldeak aurkitu ditugu honako hauetan: fikziozko saioetan, albistegietan, entretenimenduzko saioetan eta *talk show*etan. Sexuaren arabera aldeak, azkenik, fikziozko saioetan, dokumentaletan, albistegietan, kirolatan eta txutxu-mutxueta sumatu ditugu; zehazkiago esanda: mutilek nahiago dituzte kirolak, dokumentalak eta albistegiak; eta neskek, ordea, fikziozko saioak eta txutxu-mutxuak.

c) *Telebista ikusteko testuinguru fisiko eta gizarte testuinguru*

Etxean daukaten telebista kopuruari buruz emandako datuen arabera, Malagak dauka telebista kopururik handiena; Macorís-ek, berriz, txikiena. *Zer eratako pantailan ikusten duzu telebista?* galderari erantzutean (alegia, telebistako edukiak zein euskarritan ikusten ote dituzten), ikusi dugu ohiko telebista dela euskarririk erabiliena (%89); gainerakoak, berriz, gutxi ba-

tzuen euskarriak baino ez dira: ordenagailua edo konputagailua (%14,1), sakelako telefonoa eta beste zenbait.

Telebista ikusteko gizarte testuingurua adierazleari dagokionean, bestalde, telebista ikusten duten pertsonen arabera kulturen artean sumatzen den aldea estatistikoki esanahi handikoa da; ondorioz, hainbat profil finka ditzakegu. Esate baterako, Macorís-en anai-arrebekin ikusi ohi dute telebista. Donostian, bestalde, oso gutxitan ikusten dute telebista lagunekin; Malagan, berriz, gehien horietekin. Iquique dugu, azkenik, gurasoekin gutxien ikusten duten tokia.

Telebista bakarrik ikusten ote duten galdetzean, oso bestelako erantzunak aurkitu ditugu testuinguruaren arabera. Aldeak, beraz, kontuan hartzekoak dira (ikus 3. taula). Komunitateak telebista bakarrik ikusteko joera handienetik txikienera ordenatzen baditugu, hauxe dugu emaitza: Iquique, Donostia, Malaga eta Macorís.

3. taula.
Bakarrik ikusten dut telebista

TESTUINGURUA	B-bestekoa	N	Desb. tip.
1 Donostia	3,03	40	,80
2 Malaga	2,73	40	,96
3 Macorís	2,64	148	,81
4 Iquique	3,43	54	,903
Guztira	2,86	282	,901

3.2. Gurasoen bitartekotza estiloak eta familia giroa

Lehenik eta behin, ahalegindu gara jakiten ea adierazle honetan txertatutako aldagai edo itemen bitartez taldeen arteko aldeak sumatzen ote diren, eskuratutako emaitzen kultura arteko egonkortasuna aztertuta. Helburu horrekin, hautemandako bitartekotza estiloa neurtzeko item kopurua azpi dimentsio edo faktore gutxi batzuetara murrizten ahalegindu gara. Horretarako, faktoreen miazte azterketa bat egin dugu, eta hiru faktore eskuratu ditugu:

Lehenengo faktoreak, hain zuzen, gurasoek euren seme-alabek ikus ditzaketan edukiei begira duten esku hartzearekin lotutako edukiak biltzen ditu. Bitartekotza mota honek izaera zuzendaria dauka, baita agintzeko

ukitu batzuk ere; beraz, faktore honi «KONTROL» faktorea esango diogu, eta bat dator gurasoen bitartekotza murriztailearekin.

Bigarren faktoreak, bestalde, gurasoek eta seme-alabek edukiez elkarrekin gozatzeko joera jasotzen du; jarduera honen alderdi ludikoa partekatzea bilatzen du, eta kontrolari baino gehiago partekatutako gozamenari begiratzen dio. Faktore honi, beraz, «LUDIKOA» esango diogu, eta telebista elkarrekin ikusteari egiten dio erreferentzia.

Hirugarren faktoreak, azkenik, seme-alabek telebista ikusteko moduan gurasoek irakaskuntza lana egiteko jarrerak ispilatzen dituzten hezkuntza funtzioeko galdera batzuk biltzen ditu. Ez zaio garrantzirik ematen kontrolari, eta ezta alderdi ludikoari ere; aitzitik, hezkuntzari begiratzen zaio. Beraz, faktore honi «HEZKUNTZA» faktore esango diogu; alegia, bitartekotza hezitzaile edo orientatzailearekin lotutakoa izango da.

Faktore horiek, hain zuzen, gurasoen bitartekotzaren dimentsiotzat edo azpi-eskalatzat joko dira. Eta hauek dira, beraz, Cronbach-en alfa koefizienteak, dimentsio/azpi-eskala bakoitzerako: kontrolerako alfa azpi-eskala = .8225; alfa azpi-eskala ludikoa = .7721; eta alfa hezkuntza azpi-eskala = .7722. Puntuazioak altu samarrak dira; horrengatik, Valkenburg (1999) eskalako itemak egokitzea irtenbide paregabea izan da hautemandako gurasoen bitartekotza estiloak neurtzeko.

4. taula.
Bitartekotzako hiru faktoreen arteko aldeak, testuinguruaren arabera

TESTUINGURUA	GBKONTR Gurasoen bitartekotza - Kontrolatzailea	GBLUDIK Gurasoen bitartekotza - Ludikoa	GBHEZK Gurasoen bitartekotza- Hezkuntzazkoa
1 Donostia	1,9444	3,0701	2,5395
2 Malaga	1,5513	3,2957	2,6410
3 Macorís	2,4532	3,3093	3,3175
4 Iquique	1,4198	3,1741	2,4167
Guztira	2,0546	3,2480	2,9412

Dimentsio horien kulturaz gaindiko sentiberatasuna aztertzean, oro har, estatistikari begira esanahi handikoak diren aldeak aurkitu ditugu Kontrol faktorean (murriztailea) zein Hezkuntza faktorean (hezitzailea). Bereizketa ahalmena txikiagoa da, ordea, faktore Ludikoan (elkarrekin ikustea).

Testuinguruaren arabera aldeak hauteman dira; ez haatik, sexuaren arabera. Beraz, Macorisek ditu, gainerako testuinguruekin alderatuta, puntuaziorik gorenak kontrol eta hezkuntza faktoreetan.

Faktore ludikoan, bestalde, ez dago alde nabarmenik testuinguruaren artean, eta ezta sexuaren arabera ere. Alabaina, mutilen eta nesken datuen banaketari begira, Malagan eta Iquiquen, datu alderantzizatuak topatu ditugu, sexuen arteko aldeari dagokionean. Esan nahi baita, Malagan, semeek gurasoen bitartekotza ludikoagotzat jotzen dute; Iquiquen, aldiz, alabak dira era horretako bitartekotza gehien hautematen dutenak.


Komunitateei dagokienean, ez da alde nabarmenik sumatu seme-alabek telebistaren aurrean igarotzen duten denborarekin lotutako bitartekotza estiloetan (iraunkortasun adierazlea); eta sexuari dagokionean ere, alde handirik ez. Izan ere, nesken artean baino ez dago alderik Kontrol faktorearen arabera (bitartekotza murriztailea), astegunetan. Berriz ere, datu honi esker, aztertutako testuinguru guztietako neskek telebista kontsumoari begira jasaten duten gurasoen kontrol handiagoari buruz duten hautematea desberdina dela ikus dezakegu.

Saioak gurasoekin partekatzeko edo gurasoek saioaren bat ikustea debekatzeko arrazoiak aztertuz gero, ikusiko dugu testuinguru guztietan, gurasoekin telebista ikusteko arrazoi nagusia «entretentzea» izan dela (%74).

Bestalde, saioaren bat ikustea debekatzeko arrazoi nagusien artean, «indarkeriak» eta «sexuak» dute pisu nabarmenena: %27 eta %34, hurrenez hurren.

3. irudia.

Indarkeriazko irudiengatik saioak ikustea debekatzearen arteko aldeak, testuinguruaren arabera



4. irudia.

Sexu irudiengatik saioak ikustea debekatzearen arteko aldeak, testuinguruaren arabera



Gurasoen bitartekotza aztertu ondoren, ezinbestekoa da bitartekotza hori familia giroarekin harremanetan jartzea. Hiru faktoreen esku-hartzea aztertu dugu: lotura (kohesioa), komunikazioa (adierazkortasuna) eta gatazka. Azpi-eskala bakoitzerako barne oinarriari dagokionean (fidagarritasuna, Cronbachen alfaren bitartez), nola Loturarako (Alfa = ,8460), hala Komunikaziorako (Alfa = ,7606) fidagarritasuna handia da. Gatazkari begira, berriz, fidagarritasuna txikia da (Alpha = ,6668), baina ikerketa helburuetarako nahikoa, hiru itemei dagokienean.

Testuinguruaren arabera, ez dago alde nabarmenik aztertutako familia elkarreraginaren hiru osagaien artean. Alabaina, Lotura eta Adierazkortasunari dagokionean, aldeak nabarmenak eta estatistikoki esanahi handikoak dira mutilen eta nesken artean.


Hain zuzen, Loturari begira, aldeak nabarmenak dira Malagan (mutilen batez bestekoa, 4,14; eta neskena, 3,61) eta Macorisen (mutilen batez bestekoa, 4,30; eta neskena, 3,86); Iquiquen (gizonen batez bestekoa, 3,96; eta neskena, 3,88) eta Donostian (mutilen batez bestekoa, 3,89; eta neskena, 3,76), berriz, txikiagoak. Kasu guztietan, dena den, mutilen aldekoak dira datuak.

Adierazkortasunari dagokionean, berriz, 5. irudian ikus daitekeen bezalaxe, mutilek neskek baino goragoko datuak eman dituzte: mutilen batez bestekoa, 3,82; neskena, berriz, 3,55. Bereziki, Malagan (mutilen batez bestekoa, 3,89; eta neskena, 3,15) eta Macorisen (mutilen batez bestekoa, 3,87; eta neskena, 3,50); Donostian (bi sexuen batez bestekoa, 3,79)

eta Iquiquen (mutilen batez bestekoa, 3,81; eta neskena, 3,71), aldiz, alde horiek askoz ere txikiagoak dira.

5. irudia.

Kultura arteko eta sexuaren arabera aldeak, Adierazkortasunari dagokionean



Azkenik, 'Gatazka' aldagaian ez dugu alde nabarmenik aurkitu; ez testuinguruari dagokionean, eta ezta sexu edo generoari dagokionean ere. Hori bai, testuinguruaren eta generoaren arteko elkarreragina estatistikoki oso esanahi handikoa ez bada ere, joerazkotzat joenezake (0,05era hurbiltzen da). Izan ere, Iquiquen mutilak dira 'Gatazka' aldagaiari puntu gehien eman diotenak, baina gainerako komunitateetan, neskek dira datu gorenak dituztenak.

4. ONDORIOAK ETA EZTABAIDA

Gure ikerketaren aurretiazko emaitzen arabera, telebista kontsumoaren profilaran eta telebista ikusteko testuinguruaren ezaugarrien adierazle batzuei begira, azpimarratu behar dugu antzekotasun eta desberdintasun garrantzitsu batzuk egon badaudela, nola testuinguruari, hala sexuari dagokionean. Eta horiek aintzat hartu beharrekoak dira hezkuntzazko esku-hartzearen ikuspegitik eta telebista gaitasunen garapenaren ikuspegitik.

Telebistaren aurrean igarotako denborari dagokionean (iraunkortasun adierazlea), batez bestean hiru ordu igarotzen dituzte astean; asteburuan, aldiz, telebista ikusteko ordu kopurua handitu egiten da. Alabaina, badira

testuinguruaren arabera alde batzuk. Esate baterako, Malagan, nerabeek ordu gehiago igarotzen dituzte telebistaren aurrean. Sexuari begira ez dugu alde handirik topatu, baina bada salbuespen bat: Iquiqueko (txile) neskek mutilek baino denbora gehiago igarotzen dute telebistaren aurrean. Zenbait testuingurutako gurasoen iritziz, telebista astialdirako aukera «segurua» da, inguruan izan ditzaketen beste arrisku batzuekin alderatuta.

Jarduera alternatiboetara dagokionean, telebista ikusten igarotzen duten denboraz gainera, senitartekoekin edo lagunekin egoteak ere garrantzi handia dauka ikerketa honetan parte hartu duten nerabeentzat; baita beste pantaila batzuen aurrean igarotako denborarekin alderatuta ere: ordenagailu edo konputagailuren aurrean, sakelako telefonoaren aurrean edo bideojokoen aurrean, alegia. Ondorioztatu dugunez, jarduera alternatibo gehien egiten dituzten komunitateak dira astean zehar telebistaren aurrean denbora gutxien igarotzen dutenak.

Telebistari begirako lehenetsuen buruzko emaitzak, bestalde, aurretiazko azterlanetan eskuratutakoak ez bezalakoak dira (Medrano et al. 2009; Medrano et al. 2010); izan ere, nahiz eta oraindik ere saioak izan gustukoena, ikerlan honetan dokumentalak agertzen dira atzetik, eta kirolak oso atzealdean geratzen dira. Nolanahi ere, «zabor» saioak dira bi sexuak ere gutxien ikusitakoak. Eta horrek esan nahi du uste baino aukeratzeko lan handiagoa egiten dutela euren lehenetsuen finkatzean. Gainera, pribatutasunari ematen diote baliorik handiena, baita pribatuaren eta publikoaren arteko mugak errespetatzen ez dituzten saioen aurrean ere (Aierbe, Medrano eta Martínez de Morentin, 2010).

Dena den, sexuaren arabera ere batzuk zein beste batzuk izango dira lehenetsuenak; izan ere, mutil nerabeek nahiago izaten dituzte kirol programak, dokumentalak eta albistegiak; neskek, aldiz, gehiago ikusten dituzte fikziozko saioak eta kronika arrosa (txutxu-mutxuak).

Gure ikerlanak sexuen arteko erkatari gehitzen dion nabardura interesgarrietako bat, hain zuzen, kultura askotarikotasuna da. Esate baterako, Iquiqueko mutilak dira albistegiak gehien ikusten dituztenak; Malagako neskek, berriz, gutxien. Era berean, azken horiek dira fikziozko saioak gehien ikusten dituztenak, eta Macoriseko mutilak, berriz, gutxien ikusten dituztenak. Beraz, pentsa al genezake mutilei gehiago interesatzen zaizkiela ekintzak eta gaurkotasunarekin lotura duten alderdiak, eta neskei, berriz, harremanezkoak eta afektiboak? Kultura inguruneke zer alderdik daukate eragina, bada, alde horiek komunitate jakin batzuetan gertatzeko eta beste batzuetan ez? Kultura arteko erkatari dagokionean, berriz,

bestelako alde batzuk sumatzen ditugu, baina ez dute loturarik sexuarekin. Adibidez, Donostiako nerabeek ikusten dituzte gutxien entretenimenduzko saioak eta *talk show*ak; Iquiquen eta Macorísen berriz, gehien ikusten dituzte bi horiek, hurrenez hurren.

Telebista ikusteko gizarte testuinguruarekin edo telebista norekin ikustearekin lotuta, Iquiqueko eta Donostiako nerabeak dira bakarrik gehien ikusten dutenak. Saioak partekatzen dituzten pertsonen dagokienean, berriz, aldeak daude testuinguruaren arabera. Interesgarria litzateke testuinguru bakoitzean nagusi den familia egiturekin zehaztasun handiagoz lotzea: bi gurasokoa, guraso bakarrekoa, beste familia egitura batzuk... Izan ere, Macorísen, esaterako, beste testuinguru batzuetan baino handiagoa da guraso bakarrekoko familia ereduaren (%20). Iberoamerikako testuinguruan, bestalde, familian kide gehiago izateko joera dago, eta horrek ere eragina izan dezake.

Gurasoen bitartekotzari dagokionean, eta antzekotasunak hizpide hartuta, azpimarratzekoa da indar gutxien duen bitartekotza estiloa murriztailea dela testuinguru guztietan; eta atzetik ditu, hezitzailea eta elkarrekin ikustekoa. Emaizta horrek, hain zuzen, hainbat azterketak defendatzen duten eta oso zabaldua dagoen ideia bat berresten du; atal honetako lehenengo zatian ikusi dugun moduan. Estilo murriztailea da indar gutxien duena; izan ere, horrek lotura izan lezake nerabezeroan gurasoen eta seme-alaben artean izaten diren gatazkekin; eta gainera, kontuan izan behar dugu bilakaerako etapa honetan ohikoa den moduan, nerabeek euren gurasoen-gatik urruntzeko joera handitzen dutela.

Testuinguruaren araberrako aldeei dagokienean, esaterako, Macoríseko (Dominikar Errepublikan) nerabeek gainerako komunitatekoekin baino gehiago aipatzen dituzte bitartekotza murriztailea eta hezitzailea. Sexuen araberrako aldeak, ordea, telebista ikusteko ordu kopuruaren eta bitartekotzaren arteko loturan baino ez dira agertzen: nerabeek bitartekotza murriztaile handiagoa hautematen dute lanegunetan. Datu hori, era berean, bat dator beste batekin: neskek mutilek baino familia gatazka handiagoa hautematen dute (nahiz eta lortutako puntuak ez duten estatistikoki esanahi handirik).

Telebista elkarrekin ikustean, berriz, ez dago alde nabarmenik testuinguruaren araberrako. Beste bitartekotza estiloek baino gutxiago egin du behera, eta litekeena da nerabeen kontsumo gustuak helduenekin parekatzen doazelako izatea; ondorioz, gurasoek eta seme-alabek lehentasunak partekatzen dituzte. Elkarrekin ikusteko joera handiena Malagako mutilek eta Iquiqueko (txile) neskek daukate; beharbada, iraunkortasun adierazlea dela tarteko:

alegia, telebista ikusten igarotzen duten denboragatik. Izan ere, Malagako mutilak dira telebista gehien ikusten dutenak (nola astegunetan, hala asteburuan); eta bide beretik, Iquiqueko neskek mutilek baino iraunkortasun indize handiagoa daukate. Puntu honetan, bestalde, kultura faktore batzuk azter genitzake, eta baita gurasoen bitartekotza estiloekin lotura daukan familia egitura ere.

Nolanahi ere, interesgarria litzateke gurasoek edukiei begira jarrera desberdinak ote dituzten aztertzea, eta testuinguruaren araberrako hainbat bitartekotza estrategiaren alde egiten ote duten ikustea.

Bestalde, hautemandako familia giroa era batekoa zein bestekoa da testuinguruaren eta sexuaren araberrako. Beraz, Loturak eta Adierazkortsunak garrantzi handiena dute Malagan eta Macorísen. Eta sexuari begira ere badira aldeak; izan ere, mutilek neskek baino gehiago hautematen dute Lotura eta Adierazkortsuna. Gatazka dimentsioan ez dira alde nabarmenak sumatu; halere, aztertutako lagineko neskek mutilek baino gatazka gehiago hautematen dute familia giroan. Harremana ote du horrek neska nerabeek, mutilekin alderatuta, gurasoen aldetik joera murriztaile eta hezitzaile handiagoa jasotzen dutela uste izatearekin?

Dena den, ezinbestekoa da familia giroaren gatazka dimentsioa sakon aztertzea, eta lehenik eta behin, kontzeptuari berari ematen zaizkion esanahi guztiak argitzea. Gatazka, esaterako, positiboa izan liteke, gurasoen eta seme-alaben artean hainbat gai argitzearekin lotutakoa bada. Bestalde, gehiegizkoa bada, eta senitartekoen arteko komunikazioa eragozten badu, familia dinamikarako kaltegarria izan liteke. Eta interesgarria litzateke, halaber, adierazle hori sakon aztertzen jarraitzea, hautemandako klimaren eta gurasoen bitartekotza estiloen arteko harremanak bilatzen ahalegintzeko, eta baita, jakina, telebista kontsumoaren profilarrekin lotutako beste adierazle batzuekiko harremanak bilatzen ahalegintzeko ere.

Aurretiazko ikerketaren bitartez eskuratutako emaitzak, era berean, datuak biltzeko behin betiko tresna osatzeko oinarria izango dira.

Azpimarratzekoa da, dena den, testuinguru askotarikotasuna eta sexuen arteko aldeak sakon aztertzea ekintza konplexua izanagatik (hainbat aldagai erabiltzeko zailtasunagatik), oso datu interesgarriak ematen dizkigula komunikabideetan hezkuntza esku-hartzearen funtsak ezartzean. Hala, esku-hartze hori gehiago egokitu ahal izango dugu kultura bakoitzeko gazteen ezaugarrietara.

Azkenik, beharrezkoa da hainbat ekimen sustatzeko ahalegina egitea; bereziki, testuinguru formal zein informaletan, nerabeen telebista gaitasuna

landuko dutenak. Esan nahi baita, ikuspegi arrazional zein ludikotik, komunikabideekin modu orekatuan elkarreraginean jarduteko gaitasuna landuko dutenak (Aguaded eta Díaz, 2008). Argi dago prozesu honetan, kultura arteko eta sexuaren araberako ikuspegitik, behar-beharrezkoa dela bitartekotza eta elkarreraginerako testuinguruak aztertzen jarraitzea, horiek komunikabideen eragin batzuk indartzeko edo indargabetzeko duten indarragatik.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aguaded, J.I. eta Díaz, R. (2008). La formación de telespectadores críticos en educación secundaria. *Revista Latina de Comunicación Social Aldizkaria* 63, 121-139. www.uill.es/publicaciones/latina/_2008/12_19_Huelva/Aguaded.html [30-12-09].
- Aierbe, A., Medrano, C. eta Palacios, S. (2006). Mediación familiar en los hábitos televisivos de adolescentes y jóvenes. *Psicología Educativa*, 12 (1), 35-48.
- Aierbe, A. eta Medrano, C. (2007). Usos televisivos de los adolescentes y su relación con los valores. *Comunicar. Revista Iberoamericana de Comunicación y Educación*, 31, 109-114.
- Aierbe, A., Medrano, C. eta Orejudo, S. (2008). Dieta televisiva, valores y percepción de la mediación familiar en adolescentes. *Revista Mexicana de Psicología*, 25(2), 259-270.
- Aierbe, A., Medrano, C. eta Martínez de Morentin, J. I. (2010). La privacidad en programas televisivos: percepción de los adolescentes. *Comunicar. Revista Iberoamericana de Comunicación y Educación*, 35, 95-103.
- Bringué, X. eta Sádaba, Ch. (coord.) (2008). *La generación interactiva iberoamericana. Niños y adolescentes ante las pantallas*. Barcelona: Ariel eta Telefónica Fundazioa.
- Bronfenbrenner, U. (1986). Ecology of the family as a context for human development. *Research Perspectives*, 22 (6), 723-742.
- Catalán Bertoni, C. (2007). Consumo televisivo y uso del tiempo. <http://www.scrib.com/doc/16449/Carlos-Catalan> [30/11/08].
- Chaffée, S.H., Mcleod, J.M. eta Walkman, D.B. (1973). *Family communications patterns and adolescents political participation*. En J. Denis (ed.), *Socialization to Politics*, Nueva York: Wiley.
- Consejo Nacional de Televisión (Telebistaren Kontseilu Nazionala) (CNTV, 2009). Estudio de televisión y jóvenes. txileko Santiago. <http://www.cntv.cl/link.cgi/Estudios/>.
- Eggermont, S. eta Opgenhaffen, M. (2008). *Parental mediation of adolescents' television viewing in the context of changing parent-child relationships : a latent growth curve analysis in early and middle adolescence*. Paper presented at Annual Meeting of the International Communication Association, Montreal, Kanada, 22-26. 2008ko maiatza.
- Fuenzalida, V. (2005). *Expectativas educativas de las audiencias televisivas*. Bogotá: Norma.
- Fuenzalida, V., Julio, P., Suit, S., Souza, M. D., Villalobos, A. Barbano, F. eta Agirre, C. (2007). Tendencias en ficción televisiva. *Cuadernos de información* 20, 98-115.
- Gabelas, J. A. (2005). Televisión y adolescentes. *Comunicar*, 25, 137-146.
- Gabelas, J. A. eta Lazo, M. (2008). Modos de intervención de los padres en el conflicto que supone el consumo de pantallas, In *Revista Latina de Comunicación Social*, 63, 238-252 orr. La Laguna (Tenerife): La Lagunako Unibertsitatea, in http://www.uill.es/publicaciones/latina/_2008/19_25_Zaragoza/Gabelas_y_Marta.html.
- Gallo, E., Lopera, J. eta Vélez, J.C. (2008). Las preferencias televisivas de jóvenes escolarizados. *Revista Luciernaga Audiovisual*, 1.
- García Gajate, M. (2005). Conducta mediática de los adolescentes en España y Portugal. Modos de consumo de radio y de televisión. Do III Sopcom, VI Lusocom eta II Ibérico Aktak- IV. liburukia.
- Hardy, L. L., Baur, L. A., Garnett, S. P., Crawford, D., Campbell, K. J., Shrensbury, V. A., Cowell, C. T. eta Salmon, J. (2006). Family and home correlates of television viewing in 12-13 years old adolescents: *The Nepean Study. International Journal of behavioural Nutrition and Physical Activity* 3, 24.
- Horton, J. eta Arquette, C. (2000). *The role of television programming on secondary students' self identity*. New Orleans: Annual Meeting of the American Educational Research Association (AERA).
- Kaiser Family Foundation (2004). *Parents, media and public policy: A Kaiser Family Foundation survey*. <http://www.kff.org/entmedia/entmedia092304pkg.cfm>.
- Medrano, C. eta Aierbe, A. (2008). Valores y contextos de desarrollo. *Revista de Psicodidáctica*, 13(1), 53-68.
- Medrano, C., Aierbe, A. eta Orejudo, S. (2009). El perfil de consumo televisivo en adolescentes: diferencias en función del sexo y estereotipos sociales. *Infancia y Aprendizaje*, 32 (3), 293-306.
- Medrano, A., Aierbe, A. eta Orejudo, S. (2010). Television viewing profile and values: Implications for moral education. *Journal of Psychodidactics*, 15 (1), 57-76.
- Medrano, C., Aierbe, A. eta Palacios, S. (2010). El perfil de consumo televisivo en adolescentes, jóvenes y adultos: implicaciones para la educación. *Revista de Educación*, 352, 545-566.

- Moos, R. (1974). *Family environment Scale*. Palo Alto: Kalifornia. Consulting psychologists Press.
- Nathason, A. I. (2002). The unintended effects of parental mediation of television on adolescents. *Media Psychology*, 4, 207-230.
- Orozco, G. (2002). *Televisión, audiencias y educación*. Mexiko: Grupo Editorial Norma Argitaletxea. Enciclopedia Latinoamericana de Sociocultura y Comunicación (Sozio-kultura eta Komunikazioari buruzko Latinoamerikar Entziklopedia).
- Orozco, G. (Koord.) (2007). *Un mundo de visiones. Interacciones de las audiencias en múltiples escenarios mediáticos y virtuales*. Mexiko D. F. Instituto Latinoamericano de la Comunicación Educativa / Hezkuntza Komunikazioaren Latinoamerikar Institutua (ILCE).
- Pindado, J. (2005a). Los medios de comunicación en la socialización adolescente. *Telos* 62, 14-20.
- Pindado, J. (2005b). A propósito de las relaciones familia-televisión. *Comunicar* 10, 61-67.
- Santos, P. (2007). *Un estudio sobre estilos de mediación parental de televisión*. Graduako Tesia. Gizarte Zientzien Fakultatea. txileko Unibertsitatea.
- Ward, L. M. (2005). Children, adolescents, and the media: The molding of minds, bodies, and deeds. *New Directions for Child and Adolescent Development* 109, 63-71. <http://hdl.handle.net/2027.42/39128>.



MEDIOS DE COMUNICACIÓN
VALORES Y EDUCACIÓN

KOMUNIKABIDEAK BALIOAK ETA
HEZKUNTZA

THE MEDIA VALUES AND
EDUCATION

Concepción Medrano
Juan Ignacio Martínez de Morentin
(Coordinadores / Kordinatzaileak / Coordinators)

CÁTEDRA DE COMUNICACIÓN Y VALORES EDUCATIVOS
KOMUNIKAZIOA ETA HEZKUNTZA BALIOAK KATEDRA
CHAIR IN COMMUNICATION AND EDUCATIONAL VALUES



CÁTEDRA DE COMUNICACIÓN Y VALORES EDUCATIVOS
KOMUNIKAZIOA ETA HEZKUNTZA BALIOAK KATEDRA
CHAIR IN COMMUNICATION AND EDUCATIONAL VALUES

1ª edición: Julio de 2010
© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea Argitalpen Zerbitzua
University of the Basque Country, Press Service

ISBN 978-84-9860-421-4
Depósito legal: BI 2032-2010

Fotocomposición / Fotokonposizioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Impresión / Inprimatzea: Itxaropena, S.A.
Araba Kalea, 45 - 20800 Zarautz (Gipuzkoa)